



Jarraibideak, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarenak, helduen hezkuntza-zentroetan oinarritzko hezkuntzako hasierako irakaskuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortzera bideratutako irakaskuntza eta aplikatu beharreko dokumentuak ebaluatzeko.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko (aurrerantzean, LOE) 66. artikulua ezartzen du helduen hezkuntzaren helburua dela hemezortzi urtetik gorako pertsona guztiei beren garapen pertsonalerako eta profesionalerako jakintza eta gaitasunak eskuratzeko, eguneratzeko, osatzeko edo zabaltzeko aukera eskaintzea, eta helduen hezkuntzak honako helburu hauek izango dituela: oinarritzko prestakuntza eskuratzeko, jakintzak eta trebetasunak etengabe zabaltzea eta berritzea, eta hezkuntza-sistemaren irakaskuntzetarako sarbidea erraztea. Oinarritzko hezkuntzari dagokionez, Lege honetako 68.1. artikuluan hau jasotzen da: «Oinarritzko hezkuntzari dagozkion gaitasunak eta jakintzak eskuratu nahi dituzten helduei beren egoerara eta premietara egokitutako eskaintza egingo zaie.»

562/2017 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko gradudun-tituluak lortzeko baldintzak arautzen dituen, abenduaren 9ko 5/2016 Legegintzako Errege Dekretuarekin bat etorriz (Hezkuntza hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Legea ezartzeko zehaztutako egutegia zabaltzeko premiazko neurriei buruzkoa), honakoa ezartzen du laugarren xedapen gehigarrian:

1.- Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak aldatuak, 68.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion kompetentziak eta ezagutzak eskuratu nahi dituzten helduek beraien baldintzei eta beharizanei egokitutako eskaintza bat izango dute, zeina mugikortasunaren eta gardentasunaren printzipioen arabera gidatuko baita, eta aurrez aurreko zein urrutiko irakaskuntzaren bitartez gauzatu ahal izango da.

2.- Ikasleek etengabeko ikaskuntzaren kompetentziak testuinguru global batean garatzeko aukera emango dien jakintzaren ikuspegi integratua lortu dezaten, eta egungo egoeran eragiten duten aldaketa sozial eta ekonomikoetara egokitzeko gaitasuna hobetu dezaten, helduentzako Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak irakaskuntza akademiko eta aplikatuen aukeretan integratu ahal izango dira, eta moduluetan antolatu ahal izango dira, hiru ezagutza-arlotan, bakoitzak bi maila izango dituelarik:

a) Komunikazio-arloa, non integratuko baitira Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Lehen Hizkuntza eta Euskara eta Literatura.

b) Gizarte-arloa, non integratuko baitira Geografia eta Historia.

c) Zientzia- eta teknologia-arloa, non integratuko baitira Fisika eta Kimika, Biologia eta Geologia, Matematika, irakaskuntza akademikoetara bideratutako Matematika, eta irakaskuntza aplikatuetara eta Teknologiara bideratutako Matematika.

Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak hau dio laugarren xedapen gehigarrian:

1.- *Lehen Hezkuntzari dagozkion oinarritzko konpetentziak eta ezagutzak eskuratu nahi dituzten helduei beren egoerara egokitutako eskaintza egingo zaie, modu presentzialean edo urrutiko hezkuntzaren bidez.*

2.- *Ikaskuntzaren malgutasuna errazteko, helduentzako irakaskuntza moduluka antolatuko da, hiru gradutan: Hasierako Irakaskuntzak I, Hasierako Irakaskuntzak II eta Bigarren Hezkuntza.*

3.- *Helduen Oinarritzko Hezkuntza berariazko curriculum baten arabera garatuko da, dekretu honen II. eranskineko curriculum egokituz. Berariazko curriculum horrek, halaber, Oinarritzko Hezkuntzako gainerako ikasgaietako alderdiak gehitu diezazkieke arloei. Horren guztiaren azken helburua oinarritzko konpetentziak lortzea da, besteak beste, bizitzan zehar prestatzen jarraitzeko bidea emango duten ikaskuntzak egitea.*

Helduen oinarritzko hezkuntzaren berariazko curriculum erabaki eta Euskal Autonomiako Erkidegoan finkatzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2008ko urriaren 31ko Agindua indarrean jarraitzen du beste ikaskuntza batzuk egiteko esparru ireki eta malgua zabaltzeko eta helduek beraien eginkizunak gauzatzen dituzten ingurune profesionalean eskuratutako gaitasunak bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren esparruan balioztatzeko aukera aurreikusteari dagokienez.

Amaitzeko, hezkuntza-administrazioak prozedura informatikoak ezarri ditu Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ikasleen matrikulak eta ebaluazio-prozesua kudeatzeko. Prozedura informatiko horiek nahitaez erabili beharrekoak izango dira (AGINDUA, 2017ko urriaren 19koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2017-2018 ikasturteari dagokion ikastetxeei buruzko informazioa eredu bateratuaren bidez biltzeko dena - 2017ko urriaren 27ko EHAA).

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari dagokio irakaskuntza-zentroetako funtzionamendu ona ahalbidetzen duten administrazio-neurriak hartzeko eskumena, baita helduentzako hezkuntza-programak garatzeko beharrezkoak diren ekintzak sustatzeko eta aplikatzeko eskumena ere.

Bidezkoa da, beraz, irakaskuntza horiei buruzko jarraibideak ematea, aipatutako arau-aldaketak eta helduen ezaugarri bereziak aintzat hartuta. Horrela, ebaluazio-prozeduraren koherentzia ziurtatuko da, eta prozesu horretarako beharrezkoak diren dokumentuak nahiz txostenak ezarriko dira, irakasleek ikasle horiek errazago ebaluatzeko tresna erabilgarri bat izateko helburuarekin.

Aurreko guztian oinarrituta, hauek dira ematen diren

JARRAIBIDEAK:

LEHENENGOA.- Xedea eta aplikazio-eremua.

1. Jarraibide hauen helburua hainbat alderdiri buruzko argibideak ematea da, esaterako helduentzako hasierako irakaskuntzen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko helduei zuzendutako irakaskuntzen ebaluazioari, mailaz igotzeko eta titulazioari buruz, eta, bestetik, irakaskuntza horiek ebaluatzeko erabili beharreko dokumentu ofizialak zein diren azaltzea.

2. Jarraibide horiek aipatutako irakaskuntzak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko ezein zentrotan aplikatuko dira.

BIGARRENA.- Ebaluazioaren izaera.

1. Ikasleen ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioa indibidualizatua, jarraitua eta hezigarria izango da, eta, Hasierako Irakaskuntzak II-ren eta Bigarren Hezkuntzaren kasuan, irakaskuntza horiek antolatzen diren arlo bakoitzaren arabera bereizia.

2. Ikasleen etengabeko ikaskuntzak eskatzen du haiek eskoletara eta ikasketa-plana osatzen duten arloetarako programatutako jardueretara maiz joatea, baita irakaskuntzetarako programatutako jarduera osagarrietara ere, eta ezingo dira etengabeko ebaluazioaren bidez kalifikatu I. graduari, ikasketa-ordutegi osotik, ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudiak zehaztutako absentismoa baino handiagoa erregistratzen duten ikasleak edo II. eta III. graduari modulu bakoitzeko arlo bakoitzeko absentismoa erregistratzen duten ikasleak, kontuan izan gabe absentzia horien izaera; justifikatua edo justifikaziorik gabea.

3. Zentroek ikasleei modu sinesgarrian emango diete betekizun horren berri matrikula egiteko unean, eta zentroko antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamenduan etengabeko ebaluazioaren bidez kalifikatu ezin diren ikasleei edo ebaluazio hori gainditu ez duten ikasleei buruzko aparteko prozedura ezarriko dute, eta prozedura hori modu berean jakinaraziko zaie ikasleei.

4. Irakasleek curriculumeko hainbat elementu kontuan izanda ebaluatuko dituzte ikasleak. Curriculumean ezarritako eta programazio didaktikoetan zehaztutako amaierako ebaluazio-irizpideak funtsezko erreferenteak izango dira, bai oinarrizko gaitasunen eta edukien eskuratzeko-maila, bai helburuen erdieste-maila baloratzeko. Ebaluazio-irizpide horiek, baita kalifikazioak ere, ikasleei modu sinesgarrian jakinaraziko zaizkie irakaskuntza-jarduera hasten denean.

5. Etengabeko ebaluazio-prozesua talde bakoitzeko irakasleek osatutako irakaskuntza-taldeak egingo du, eta taldeko irakasle-tutoreak koordinatuko du, zentroko orientatzailearen laguntzarekin, horrela badagokio. Arlo bakoitzeko kalifikazioa arlo bakoitzeko irakasleek erabakiko dute. Gainerako erabakiak, irakasleen taldeak hartuko ditu, adostasunez. Hori gertatzen ez denean, gehiengo osoaren irizpidea erabiliko da, hau da, irakasleen taldea osatzen duten kideen erdia baino gehiagoren irizpidea.

6. Etengabeko ebaluazio-prozesuan moduluko arloren bat gainditu ez duten ikasleek amaierako ebaluaziorako aparteko prozedurarako eskubidea izango dute. Prozedura hori ikastetxe bakoitzak ezartzen du bere Ikastetxearen Ikasketa Proiektuan edo programazio didaktikoei buruzko antzeko dokumentu batean.

7. Irakasleek ikasleen ikaskuntza ebaluatuko dute, baita irakaskuntza-prozesuak eta beraien (irakasleen) irakaskuntza-praktika ere. Koordinazio didaktikoko sailek ikasturte amaierako memorian jasoko dute ebaluazio horretako emaitzen azterketa; ikasleena zein irakaskuntza-praktikari dagokiona.

8. Etengabeko ebaluaziora egindako erreferentziak ez dira aplikatuko urrutiko erregimeneko irakaskuntzetan.

HIRUGARRENA.- Ebaluazioaren emaitzak.

1. Hasierako irakaskuntzetan, hau da, I. eta II. graduan, modulu bakoitzeko ebaluazio-emaitzak honako termino hauetan adieraziko dira: GAI (G) edo EZ GAI (EG); negatibotzat jotzen da EG kalifikazioa, eta, aldiz, G kalifikazioa, positibotzat.

2. Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua lortzeko irakaskuntzetan (III. gradua) irakaskuntzetako ebaluazio-emaitzak kalifikazio kualitatibo hauekin adieraziko dira: Gutxiegi (G), Nahiko (N), Ongi (O), Oso Ongi (OO), Bikain (B), negatibotzat jotzen da Gutxiegi kalifikazioa; gainerakoak, aldiz, positibotzat. Adierazpen horiek kalifikazio kuantitatiboarekin ere adieraziko dira, dezimalik gabe, batetik hamarrerako eskalan. Honakoak dira baliokidetzak:

- Gutxiegi: 1, 2, 3 edo 4.
- Nahiko: 5.
- Ongi: 6.
- Oso ongi: 7 edo 8.
- Bikain: 9 eta 10.

3. II. eta III. graduetakako arlo bakoitzak kalifikazio bakarra izango du dagokion eskalan.

4. III. graduan, arloak gainditutzat jotzen dira 5eko kalifikazioa edo hortik gorakoa dutenean, eta ez gainditutzat jotzen dira 5etik beherako kalifikazioa dutenean. Ikasle bat etengabeko ebaluazioan Gutxiegi kalifikazio duen gaietakoren bati dagokion ebaluazio-amaierako aparteko prozedurara aurkezten ez bada, ebaluazio-dokumentuetan «Ez aurkeztua» gisa erregistratuko da.

5. Arloren bat baliozkotutzat deklaratzeko bada Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2008ko urriaren 31ko Aginduko 14. artikulua aplikatzearen ondorioz –helduentzako Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum espezifikoa ezarri eta EAEn finkatzen du aginduak–, ikaslea ez da matrikulatuko ezta kalifikatuko ere alor edo irakasgai horretan. Noten eta hutsegiteen aplikazio informatikoa (aurrerantzean, NeH) (--) bistaratuko da ebaluazio-aktari dagokion laukitxoan. Baliozkotzeak dituzten ikasleak aplikazio informatikoan horretarako ezarritako moduan txertatuko dira.

6. Ikasle batek modulu bat errepikatzen badu eta alorren bat gaindituta badu aurreko deialdietan, ez da matrikulatuko ezta kalifikatuko ere gainditutako arloetan. Inolako kasutan ezingo dira errepikatu gainditutako arloak. Ebaluazio-akta inprimatzen denean (--) bistaratuko da dagokion laukitxoan.

7. Ikasle bati Euskal Hizkuntza eta Literatura ikastetik salbuetsita egotea behar bezala onartzen zaionean, zirkunstantzia hori matrikulako aplikazio informatikoan jasoko da eta, ondoren, espedientearen agertuko da.

8. Ikasleek aurreko moduluari dagozkion arloak gainditu beharko dituzte, hurrengo moduluko arlo homonimoetan irakasleek kalifikatu ahal izateko. Modulu bateko arlo bat ezin bada kalifikatu ikasleak ez duelako aurreko moduluko alor homonimoetako bat gainditu, NeH aplikazio informatikoan “Ez ebaluatua” aukera hautatuko da dagokion laukitxoan. Ebaluazio-akta inprimatzen denean EE (Ez ebaluatua) bistaratuko da dagokion laukitxoan.

9. Alor bat ezin bada kalifikatu ikaslea ez dagoelako alor horretan matrikulatuta eta aurreko puntuak ezin bazaizkio aplikatu, NeH aplikazio informatikoan dagokion

laukitxo bete gabe utziko da. Ebaluazio-akta inprimatzen denean (--) bistaratuko da dagokion laukitxoan.

10. Inolako kasutan ezingo da onartu ebaluazioko amaiera-aktetan laukitxo zuririk egotea, kalifikazioen bat ez egotea edo aurreko lerrokadetan adierazitako bestelako egoeraren bat betetzea.

LAUGARRENA.- *Promozioa.*

1. I. graduan, ikasleek GAI kalifikazioa lortu badute hurrengo gradura igaroko dira.

2. II. eta III. graduetan ikasleak modulu batetik hurrengora igaroko dira, arlo guztiak gainditzen dituztenean edo gainditu gabeko arlo bakarra dutenean.

Salbuespen gisa, irakasleen taldeak bi arlotan ebaluazio negatiboa duen ikaslea hurrengo modulura igarotzea erabaki ahal izango du; betiere, irakasleen taldeak uste badu arlo edo gai horien izaerak ikasleari ez diola kalterik egiten hurrengo moduluan arrakastarekin jarraitzeko, errekupeatzeko aldeko aukerak dituela eta hurrengo modulura igarotzeak ikaslearen eboluzio akademikoari mesede egingo diola. Erabaki hori behar bezala dokumentatuko da eta ikaslearen espedientean jasoko da.

Gainditzeke dauden gaiak zenbatzeari dagokionez, izen bera duten modulu desberdinetako arloak gai desberdintzat joko dira.

3. Gainditu gabeko arlo batekin hurrengo modulura igarotzen direnak, arlo edo gai horietan ebaluatuko dira.

4. Errepikatzeko-kasuan, kalifikazio positiboa duten arloak ezingo dira berriz eman.

5. Artikulu honetako lehenengo bi ataletan ezarritakoa ezin da aplikatu urrutiko irakaskuntza-erregimenean.

BOSGARRENA.- *Gainditu gabeko arloen errekupeazioa eskolara joan ezin denean.*

1. Aurreko moduluko gainditu gabeko arloren bat duten ikasleek arlo edo aukerako irakasgai horretan matrikula egingo dute (hurrengo moduluan halakorik eskaintzen bada eta alor homonimoan matrikula egin badute) eta arlo horretarako programatutako eskola-jardueretara joango dira, joan daitezkeen aldi guztietan. Ordutegiak bateragarriak ez direlako ikasleek aurreko moduluko jardueretara ezin badute joan, ikasleek eskuratu gabeko ikaskuntzak berreskuratzeke hezkuntzako errefortzuaren programa indibidualizatua egingo dute eta programa horri dagokion ebaluazioa gainditu beharko dute. Arlo horiei dagozkien taldeetako aktetan era normalean kalifikatuko dira.

2. Aurreko lerrokadetan adierazitako eskola-bertaratze hori ezin bada bete, koordinazio didaktikoko sailek edo zentro pribatuetan funtzio horiek dituenak izango du jarduera horiek programatzeko ardura eta, halakorik bada, baita ikasleek hezkuntza-errefortzuko programa indibidualizatua gainditu ahal izateko, hau da, ikasleek gainditu gabeko alorretan ebaluazio positiboa lortzeko proba partzialak prestatzeko ardura ere.

3. Errekuperazio-jarduerak egiten dituzten irakasleen ardura izango da ikasle horien jarraipena egitea; horrez gain, hurrengo moduluko irakasle bakoitzarekin koordinatzeko ardura ere izango dute. Jarduera horietarako irakasle espezifikorik ez badago, hurrengo alorreko irakasleek egingo dute ikaslearen jarraipena.

4. Moduluko arloen ebaluazioa egiteko ardura departamentuak izango du.

5. Gainditu gabeko arloa ez bada zentroan eskaintzen eta hurrengo arlo homonimoan ere ikasleek matrikula egin badute, arlo horretan ere matrikula egin behar izango dute. Errekuperaziorako, ebaluaziorako eta kalifikaziorako aurreko lerroketan adierazitakoa aplikatuko da. Kalifikazioa aplikazio informatikoan erregistratuko da.

6. Artikulu honetan ezarritakoa ezin da aplikatu urrutiko irakaskuntza-erregimenean.

SEIGARRENA.- *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua.*

Helduen irakaskuntzetako III. gradua amaitzean jakintza-arlo guztiak gainditu dituzten ikasleek irakaskuntza horietako oinarrizko gaitasunak eta helburuak eskuratu dituztenez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortuko dute.

ZAZPIGARRENA.- *Batez besteko nota.*

Etapako batez besteko nota honela kalkulatu da (nahitaezkoa da egun):

1.- *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren baliokide diren mailai dagozkien arloetan soilik lortutako kalifikazioak hartuko dira kontuan (III. gradua, 1. eta 2. mailak; hau da, lau lauhileko).*

2.- *Arlo batzuen konbalidazioen kasuan, etapako amaierako kalifikazioa bi mailetan ikasi eta gainditutako arloen batez besteko aritmetikoa izango da etapako amaierako kalifikazioa.*

3.- *III. gradua amaitzean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulurako proposatzen diren pertsonen aplikazio informatikoak sortzen duen historia akademikoa emango zaie (Ziurtagiri digitala).*

ZORTZIGARRENA.- *Deialdiak.*

1. Eskoletara joaten diren ikasleen modalitatean, ikasleek gehienez lau deialdi izango dituzte modulu bakoitzeko jakintza-arlo bakoitza gainditzeko. Zenbaketaren ondorioetarako, modulu bakoitzeko etengabeko ebaluazio-prozesuak eta amaierako ebaluazioko aparteko prozedurak deialdi bakar bat izango dute.

2. Artikulu honetako 1. puntuan ezarritako deialdien gehieneko muga ez agortzeko, jakintza-arlo guztietan edo horietako batean ikasturte bakoitzean egiten diren bi deialdietako bati edo bi deialdiei uko egitea eskatu ahal izango dute ikasleek. Uko-egite horrek salbuespenezko izaera izango du, eta hurrengo zirkunstantzietakoren bat gertatzen denean onartuko zaio soilik:

a) Ikaslea denbora luzean gaixo egotea edo ikasleak istripu bat izatea.

- b) Uko egitea eskatu duen gaiak esleitu duen ordutegiarekin bateragarria ez den lanpostu batean jardutea ikasleak.
- c) Ikasketetan normal aritzea eragozten duten (zentroko zuzendariak kontuan hartutako) obligazio pertsonalak edo familia-obligazioak izatea.

3. Uko egiteko eskaeran ematen diren arrazoiak beti dokumentuen bidez justifikatu behar dira. c) kasuan, ikasleak obligazio mota adierazten duen idatzi bat aurkeztuko du.

4. Deialdiari uko egiteko eskaera uko-egitea eskatzen den arloaren edo arloen amaierako ebaluazioaren data baino hilabete lehenago aurkeztuko da, gutxienez. Zentroko zuzendariak gehienez hamar eguneko epea izango du eskaera ebazteko. Ebazpenaren kopia bat erantsiko da ikaslearen espediente akademikoan, baita interesdunak aurkeztutako dokumentazioa ere.

5. Kasu horretan, horren berri emango da ebaluazio dokumentuetan, NeH aplikazio informatikoaren bitartez (Uko egitea)

6. Urrutiko modalitatean ez dago deialdi-mugarik.

BEDERATZIGARRENA.- Ebaluazio-saioen definizioa eta ebaluazio-saioak.

1. Ebaluazio-saioak jarraipeneko saio partzialak edo kalifikazioko amaierako saioak izan daitezke.

2. Ikasle-talde berdinari eskolak ematen dizkieten irakasleek egiten dituzten bilerak dira ebaluazio-saioak. Bilera horiek irakasle-tutoreak koordinatzen ditu, ikastetxeko orientatzailearen laguntzarekin, oinarrizko gaitasunen, edukien eta lortutako helburuen eskuratzeko-mailari dagokionez ikasleen ikaskuntza baloratzeko.

3. Talde bakoitzeko irakasle-tutoreak ebaluazio-saioetako akta idatziko du eta saio horietatik eratortzen den dokumentazioa bete eta zainduko du; haietan jasoko dira ikasleek ematen dituzten arloetan lortutako kalifikazio partzialak.

Amaierako ebaluazioan lortzen diren kalifikazioak sartuko dira Notak eta Hutsegiteak aplikazio informatikoan, eta bertan sortuko dira dagozkion amaierako kalifikazio-aktak.

4. Ebaluazio-saioetan egindako ikaskuntza-prozesuaren eta egindako jardueren emaitzari buruz nahiz gai bakoitzean lortutako kalifikazioei buruz ikasle bakoitzari komunikatuko zaion informazioa adostuko da.

5. Aurrez aurreko erregimenean, modulu bakoitzean, gutxienez, ebaluazio partzialeko eta amaierako ebaluazioko saio bana egingo da talde bakoitzeko.

6. Aurrez aurreko erregimenean, III. graduako ikasleek etengabeko ebaluazioaren prozesua amaitzen dutenean, mailetako edozeinetako batean arloren bat gainditu gabe badute, eskola-aldia amaitzen denean amaierako ebaluazioko aparteko prozeduran aurkezteko aukera izango dute.

Urrutiko erregimenean, modulu bakoitzeko arlo bakoitzean idatzizko eta eskolan bertan egin beharreko proba bat egingo da. Proba horrek nahitaezko izaera du eta ikasitako guztia sartuko da bertan. Proba horien arduradun ikasketa horiek emateko baimendutako zentro bakoitzeko irakaskuntza-taldea izango da. Proba

horietara aurkezteko, ez da nahitaezkoa izango aurrez aurreko eskoletara joatea, borondatezko izaera baitute.

7. Amaierako ebaluazioan, modulu bakoitzeko hainbat gaitako amaierako kalifikazioa emango da. Saio horretan, ikasleek egindako moduluko jakintza-arloetan, edo, halakorik bada, gainditu gabeko arloan lortutako kalifikazioak ikasleen ebaluazio-dokumentuetan idatziko dira; betiere, jarraibide hauetako hirugarren artikuluan ezarritakoa kontuan izanda.

8. Saio horretan, hurrengo modulura igarotzeko eta titulua lortzeko erabakiak hartuko dira, eta horiek ere ebaluazio-dokumentuetan idatziko dira.

9. I. graduan matrikulatutako ikasleei hurrengo modulura igarotzea esleituko zaie, egin duten moduluan kalifikazio positiboa lortu badute.

10. II. graduan edo III. graduako lehenengo hiru moduluetakoa batean matrikulatutako ikasleei hurrengo gradura igarotzea esleituko zaie jarraibide hauetako laugarren artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.

11. III. graduako IV. moduluan oinarritzko gaitasunak eta oinarritzko hezkuntzako helburuak eskuratu dituzten ikasle matrikulatuei Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako tituluaren jaulkipen-proposamena esleituko zaie, jarraibide hauetako seigarren artikulua kontuan hartuta.

HAMARGARRENA.- Ebaluazio-dokumentuak.

1. Irakaskuntza horietarako ebaluazio-dokumentu ofizialak hauek dira: espediente akademikoa, ebaluazio-aktak, historia akademikoa eta lekualdatzeagatiko txosten pertsonala. Kasuaren arabera, dokumentuak inprimatu ahal izango dira, edo besterik gabe aplikazio informatikoan gorde. Nahitaezkoa bada dokumentu inprimatuak sinadura bidez autentifikatzea, sinadurak autografoak izango dira, irakasleenak edo kasu bakoitzerako xedatzen diren kargudunenak.

2. Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak ezarriko ditu Sailaren aplikazio informatikoetan jasotzen den ebaluazio-dokumentu bakoitzaren modeloa eta haren edukia eta diseinua.

HAMAIKAGARRENA.- Espediente akademikoa.

1. Ikasleen espediente akademikoa irakaskuntza horietan lortutako kalifikazioak eta gorabeherak jasotzen dituen dokumentu ofiziala da. Espediente akademikoa aplikazio informatikoan irekiko da, ikaslea ikastetxean sartzen den unean. Haren edukia unean-unean zehazten dena izango da.

2. Espediente akademikoari, horrela dagokionean, hauek erantsiko zaizkio: txosten psikopedagogikoak, zeinak ikastetxeko orientatzaileen aholkularitzarekin egingo baitira; uko egiteko eskabidea eta hari buruzko ebazpena, eta ikaslearen bizitza akademikoan eragina duen dokumentazio ofizial guztia.

3. Espediente Akademikoen zaintza eta, horrela badagokio, artxiboa ikastetxeren ardura izango da.

HAMABIGARRENA.- Ebaluazio-aktak.

1. Ebaluazio-aktak modulu bakoitzaren amaieran jaulkitzen diren dokumentu ofizialak dira. Amaierako ebaluazio bakoitzaren ondoren betetzen dira. NeH aplikazio informatikoak sortzen ditu, dagozkion kalifikazioak sartu ondoren.

2. Ebaluazio-aktetan datu hauek guztiak jasoko dira: taldea osatzen duten ikasleen izenen zerrenda, modulu bakoitzeko alorren izen zehatza, ikasleek lortutako kalifikazioak eta hurrengo modulura igarotzeko erabakia. III. graduako IV. moduluan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua jaulkitzeko proposamena jasoko da.

3. Ebaluazio-aktak sinatu egingo dira, 10.1 artikuluan zehazten den moduan.

4. Aurreko paragrafoetan aipatzen diren ebaluazio-aktetan idatzitako emaitzak automatikoki agertuko dira dagokien espediente akademikoetan eta historia akademikoetan.

5. Aktek ez dute baliorik izango zuzenketak edo zirrimarrak badituzte. Testuan aldaketaren bat egin behar den kasu guztietan, eginbideak sortzeko aplikazioak duen tresna erabiliko da horretarako. Aldaketa horiek automatikoki islatuko dira espediente eta historia akademikoetan.

6. Eskola-zentroei dagokie ebaluazio-aktak zaintzea eta artxibatzea. Haiena izango da eskatzen diren ziurtagiriak emateko eskumena. Aplikazio informatikoak ez baditu ziurtagiriak sortzen, edo aplikazioak berak hala eskatzen badu, idazkariak sinatuko ditu eta ikastetxeko zuzendariak ikus-onetsiko ditu.

HAMAHIRUGARRENA.- Historia akademikoa.

1. Historia akademikoa, zeina oinarritzko dokumentutzat jotzen baita, ebaluazioko emaitzak eta ikasleen aurrerapen akademikoari buruzko erabakiak jasotzen dituen dokumentu ofiziala da, eta egindako ikasketen egiaztatzea. Haren edukia aplikazioaren une bakoitzean automatikoki eta espediente akademikoan aurretiaz sartu diren datuetan oinarrituz sortzen dena izango da.

2. Historia akademikoa aplikazioaren bidez sortuko da, eta ikasleei emango zaie dagozkien irakaskuntzak amaitzen dituztenean.

HAMALAUGARRENA.- Ikastetxez aldatzea.

1. Ikasle bat bere ikasketekin jarraitzeko beste ikastetxe batera aldatzen bada, eta zentro hori EAetik kanpo badago, jatorrizko ikastetxeak aplikazioak sortzen duen historia akademikoa helaraziko dio helburuko zentroari, haren eskariz eta ahalik eta lasterren, aplikazioak ematen duen egoeran betiere.

2. Ikaslea ikasturtea amaitu baino lehen beste ikastetxe batera lekualdatzen bada bere ikasketekin jarraitzeko, eta zentro hori EAetik kanpo badago, historia akademikoaz gain, jatorrizko zentroak lekualdatzeagatiko txosten pertsonala igorriko du. Txosten horretan ikasleak ikaskuntza-prozesuarekin jarraitzeko beharrezkoa den informazioa egongo da, eta egindako ebaluazio partzialen emaitzak agertuko dira bertan. Txostena tutoreak egingo du, ikastetxeko orientatzailearen laguntzarekin, irakasgaietako irakasleek emandako datuak kontuan hartuta, eta zuzendariaren

oniritzia izango du. Lekualdatze-txosten pertsonalak, gutxienez, elementu hauek izango ditu:

- a) Jatorrizko zentroa eta ikaslea identifikatzeko datuak.
- b) Egiten ari den modulua eta gaiak.
- c) Gaingitu gabeko gaia, halakorik balego.
- d) Kalifikazio partzialak, aldi horretan eman izan balira.
- e) Ikaslearen aurrerapen orokorrari buruz egokitzen diren ohar guztiak.

3. Lekualdatze-txosten pertsonala historia akademikoarekin batera bidaliko da destinoko zentrori (historia EAetik kanpoko zentroetarako bakarrik).

4. Ikaslea beste autonomia-erkidego batetik badator, matrikulak behin betiko izaera edukitzeko historia akademikoa behar bezala beteta jaso beharko da. Dokumentazioa jasotzen duen zentroaren ardura izango da historia akademikoa eta lekualdatze-txosten pertsonala zaintzea. Horrez gain, ikaslearen espediente akademikoa ireki beharko du aplikazio informatikoan, eta jasotako historia akademikoa erantsiko dio, formatu digitalean.

HAMABOSGARRENA.- *Ebaluazioari buruzko informazioa.*

Ikaslearen eskola-errendimendua erabateko objektibotasun-irizpideen arabera baloratzeko eskubidea bermatzeko helburuarekin, ikaskuntzak, hurrengo modulurako igarotzeak eta titulazioak ebaluatzeko aplikatuko diren irizpide orokorrak publiko egin beharko dira. Koordinazio didaktikoko sailek, irakasleen bidez, eskola-aldiaren hasieran gai desberdinak gaingitzeko beharrezkoak diren gutxieneko edukiei buruz, errehabilitazio-prozedurei buruz eta aplikatu daitezkeen ebaluazio- nahiz prozedura-irizpideei buruz informatuko dute, 2008ko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-zentroetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoan, aurreikusitakoaren arabera. Zentro bakoitzeko ikasketako buruak izango du informazio-prozesu hori koordinatzeko eta egiaztatze ardurak.

HAMASEIGARRENA.- *Ikasturtean zehar eta amaierako ebaluazioaren ondoren ikasleak informatzea.*

1. Aldian-aldean, eta kasu guztietan, ebaluazio-saio bakoitzaren ondoren eta horrela jarduteko zirkunstantziak daudenean, tutoreak ikasleei jakinaraziko dizkie probetxu akademikoa eta hezkuntza-prozesuaren martxa. Horretarako, etengabeko ebaluazio-prozesuan jasotako informazio erabiliko da.

2. Amaierako ebaluazioaren ondoren, ikasleari idatziz jakinaraziko zaio informazio hori, eta, gutxienez, datu hauek adieraziko dira:

- a) Ikasleak egindako hainbat gaitan lortu dituen kalifikazioak.
- b) Hurrengo modulura igarotzen den ala ez.

3. Tutoreak eta hainbat arlo edo modulutako irakasleak ikasleekin erraz komunikatuko dira ikaskuntza-prozesuari buruzko balorazioei dagokienez, egokiak diren argibideak emateko helburuarekin.

4. Aurreko hiru paragrafoetan adierazitakoa irakasgai horien urrutiko erregimeneko ezaugarrietara egokituko da.

HAMAZAZPIGARRENA.- *Ebaluazio-emaitzen gaineko erreklamazioa zentroko instantzien aurrean.*

Zentroko instantzien aurrean erreklamazioak egiteko prozedura, ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudian xedatutakoari egokituko zaio.

Aipatutako prozedura ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudian agertzen ez bada, arau hauek aplikatuko dira subsidiarioki:

1. Edozein kalifikazio publiko egin eta jakitera eman ostean, ikasleek 48 orduko epea izango dute dena delako kalifikazioaren gaineko erreklamazio arrazoituak eta argudiatuak aurkezteko.

2. Kalifikazio partzial baten aurkako edozein erreklamazio tartean den irakasleari aurkeztu beharko zaio, eta irakasle horrek 48 orduko epea izango du erantzuteko.

3. Amaierako kalifikazioen erreklamazioak zentroko zuzendariari aurkeztu beharko zaizkio, idatziz.

4. Zuzendariak dagokion koordinazio didaktikoko sailari edo zentro pribatuetan funtzio horiek dituenari aurkeztuko dio erreklamazioa, eta sail edo pertsona horrek erreklamazioari buruzko txosten bat egin eta igorri beharko du. Txosten horrek honako hauek jaso beharko ditu: probak erantzuten dien programatutako edukiei, alorraren helburuei erantzuten dien, eta ezarritako ebaluazio-irizpideei (sailak argitara emandakoei) erantzuten dien.

Aipatu erreklamazioa onartzen bada, saileko buruak edo zentro pribatuetan funtzio horiek dituenak zentroko zuzendariari dagokion ebazpena proposatuko dio, eta kalifikazio berria aktetan eta gainerako dokumentuetan jaso beharko da, arauzko prozeduraren bidez.

HAMAZORTZIGARRENA. *Zentrotik kanpoko instantzien aurreko erreklamazioak.*

Moduluen amaierako kalifikazioei buruzko erreklamazioa aurkeztu ahalko da, betiere ikaslea matrikulatuta dagoen zentroaren barruko erreklamazio-prozesua bukatu ostean. Honelaxe jokatu beharko da:

1. Ikaslea ez badago ados emandako ebazpenarekin, alegazio bat aurkez dezake Ikuskaritzako Lurralde Burutzan. Alegazioa idatziz aurkeztu beharko du, Ikastetxeko Zuzendaritzaren bitartez, eta 48 orduko epean. Horrekin batera, Ikastetxeko zuzendariak Hezkuntzako Ikuskaritzari bidaliko dizkio erreklamazioaren xede izan diren ariketa originalak, baita programazioa, eskatutako maila eta ebaluazio-irizpideak jasotzen dituen Departamentuko dokumentazioa, eta ikastetxeko instantzien aurrean jarraituriko erreklamazio-prozesuari dagokion dokumentazioa ere.

2. Hezkuntzako Ikuskaritzak aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du programazioko edukiei eta Departamentuak aurrez ezarritako ebaluazio-irizpideei egokitzen zaien zehazteko, eta, ondoren, honako hau erabakiko du:

a) Seinalatutako baldintzak betetzen badira, Ikuskaritzak erreklamazioa ezestea proposatuko du.

b) Erreklamazioaren gai den ariketa ez bada egokitzen aldeztu aurretik finkatutako programazioko edukietara, dagokion sailari edo batzorde ebaluatzaileari zera proposatuko die Ikuskaritzak: beste proba bat prestatu, gauzatu eta ebaluatu dezala, eta prozesua gainbegira dezala.

c) Erreklamazioaren gai den ariketak programazioko edukiei erantzuten badie, baina esleitutako kalifikazioa ez bazaie egokitzen Sailak aldeztu aurretik finkatutako ebaluazio-irizpideei, Ikuskaritzak aipatu kalifikazioa aldatzea proposa dezake, berak egoki uste duen eran.

3. Kasu guztietan, Lurralde Ordezkaritzak ebatziko du erreklamazioari buruz (Hezkuntzako Ikuskaritzako aurretiazko txosten arrazoituarekin), eta, horretarako, erreklamaturako alorreko edo gaiko irakaskuntzan aritzen diren irakaskuntza-espezialitateko irakasle baten edo gehiagoren aholkularitza jaso ahal izango du.

HEMERETZIGARRENA. *Programazioak eta programak.*

Koordinazio didaktikoko sailek, irakasleen bidez, araututako irakaskuntzetako eta irakaskuntza ez-arautuetako programazio didaktikoak egingo dituzte. Programazio horiek publikoak izango dira eta zentroan artxibatuko dira Ikasketetako buruaren gainbegiratupean. HHEko irakaskuntzetara egokitutako eredu espezifiko bat ezartzen ez den bitartean, erreferentzia gisa dokumentu hau erabili ahal izango da: «Programazio didaktikoak egiteko orientazioak» (Ikuskaritzako webgunean eskura daiteke).

Zentroek prestakuntza-programa ez-arautuen diseinua dokumentatu beharko dute, gutxienez, espezifikazio hauekin: kolektibo hartzaileak, edukien programazioa eta jarduketak nagusiak (eta horiek aurreikusitako helburuekin koherentzia izango dute), prestakuntza-programaren ezaugarriak eta denborazkotasuna, eskolak ematen dituzten irakasleen esperientzia eta ikasleen ebaluazioarekin zerikusia duten alderdiak, bidezko denean.

HOGEGARRENA. *Hezkuntzako Ikuskaritzak ebaluazio-prozesua ikuskatzea eta horri buruz aholkatzea.*

Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio ebaluazio-prozesuaren garapena gainbegiratzea eta zentroei aholkularitza ematea hobetzen lagunduko dieten neurriak har ditzaten. Horregatik, ikuskatzaileak, beharrezkoa denean, zentroko gobernu-organismoekin eta/edo irakaskuntza-koordinazioko organismoekin elkartuko dira, eta arreta berezia jarriko dute ikasleen ebaluazio-emaitzetan eta hasten dituzten hobekuntza-ekimenetan. Bilerak horietan ikasleen amaierako ebaluazio-emaitzen txostenak erabiliko dira, baita irakaskuntza-prozesuetako nahiz irakaskuntza-praktikako ebaluazio-emaitzak ere.

JARRAIBIDE GEHIGARRIAK:

**Lehenengoa.-** *Ikasleen datu pertsonalak.*

Ikasleen datu pertsonalak lortzeari, datu horiek zentro batek beste bati lagatzeari eta datu horien segurtasunari eta konfidentzialtasunari dagokienez, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen legedia beteko da eta, kasu guztietan, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen dena beteko da.

Bigarrena.- *Adingabeko ikasleak.*

Indarrean dagoen legediaren babesean irakaskuntza horietan ari diren adingabeko ikasleen kasuan, jarraibide hauetako 8.2, 9.3, 16, 17 eta 18. artikuluetan aurreikusitakoa familietara edo legezko tutoreetara hedatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 30a

Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria

Eugenio Jimenez Ibáñez